

## PRETSA-OHARRA

### Tekniker Espainiako osasun-sektoreko iraultza robotikoaren buru da

- *2023tik hona, Espainiako Gobernuko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak bultzatutako HispaRob plataformaren robotika mediko eta asistentzialeko I+Gko taldea koordinatzen du*
- *Europak soluzio teknologiko berriak eskatzen ditu hainbat arlotan, hala nola diagnostikoan, errehabilitazioan, esku-hartzean eta pazienteen zein zaintzaileen asistentzian*

[Eibar, 2024ko apirilak 24] – Teknologia robotikoek aukera berriak zabaltzen ari dituzte hainbat sektoretan, eta osasun-arloa ez dago iraultza horretatik kanpo. Kalitatea, kontrola, elkarrekintza, manipulazioa, nabigazioa, pertzepzioa eta segurtasuna bezalako arloetan ezagutza berria sortzeak ekosistema mediko eta asistentzialari lagundu eta hura bermatu behar du ezinbestean, besteak beste, diagnostikoan, esku-hartzean, errehabilitazioan eta zaintzaile eta pazienteentzako asistentzian, bizitza autonomoa eta independentea lortzeko helburuarekin.

Sektore soziosanitarioan teknologia horien garapenean Espainia lider gisa kokatzeko helburuarekin, **Tekniker** euskal zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) zentroko kideak, **HispaRob** teknologia robotikoaren Espainiako plataformako Robotika Mediko eta Asistentzialeko Lantaldea koordinatzen du 2023tik aurrera, Espainiako Gobernuko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak bultzatuta.

Taldearen egitekoa pertsonen bizi-kalitatea eta profesional sanitarioen eta zaintzaileen lan-baldintzak hobetzea da, pertsonarengan oinarritutako teknologia robotikoen (*human-centered*) bidez.

Horretarako, ekosistema horrek unibertsitateek, zentroek, enpresek eta ekosistema soziosanitarioko beste eragile batzuek robotikari, errehabilitazio-, mugimendu-, gizarte- zein

zahartze-zientziei, lineako asistentziari eta osasunari buruz duten ezagutza bateratzen du, Espainiako ehunari Europa mailako diziplinarteko I+G ingurune bakarra emanez.

## **Teknologia robotikoak arlo medikoan eta asistentzian**

Teknikerrek koordinatutako taldearen helburu nagusiak dira Europako robotika-plataforma teknologikoaren eskaerekin (**euRobotics**) bat egitea eta medikuntza- eta asistentzia-sektorerako teknologia robotikoetan ekosistema espainiarra sortzen laguntzea.

Besteak beste, honako erronka hauek lortu nahi dira: errehabilitazio-prozesuak babestea, autonomia eta independentzia indibiduala areagotzea osasuna zaintzeko sistemak optimizatuz, hirugarren adineko pertsonen eta nerabeen osasun mentala hobetzea, gaixotasunak diagnostikatzea, kirurgiak optimizatzea, etab.

Zentro teknologikoak, mekatronikan duen gaitasun osoa eta gailu medikoen garapenean duen esperientzia eskaintzeaz gain, ISO 13485ari esker, elkarreragin naturaleko teknologia robotiko berrien eta pertsonaren egoera afektibo-kognitiboaren aldeko apustua egiten du.

"Gure diziplina anitzeko taldeak taldeko kideen artean sinergiak eta lankidetzak sortzen lagun dezake, bai eta I+G+B eta ezagutza enpresa-sare sozio-sanitarioari transferitzea sustatzen duten ikerketa-proiektuak sortzen ere", nabarmendu du Eneko Ugaldek, Teknikerreko Sistema Autonomo Adimendunen zuzendariak.

## **HispaRobi buruz**

Espainiako Robotikaren Plataforma Teknologikoa, HispaRob, Espainiako Gobernuak bultzatutako foro bat da, non teknologia robotikoen garapenean, sustapenean eta integrazioan inplikaturako eragileek bat egiten duten gure gizartean.

Bere helburu nagusia Espainia robotikan liderra den herrialde gisa posizionatzen laguntzea da, batez ere hainbat sektoretan (nekazaritza, medikuntza eta asistentzia, garraioa, segurtasuna, energia, ingurumena, aisia, hezkuntza, etab.) jada ezartzen ari diren aplikazio berrietan, industrian izan ohi duen aplikaziotik haratago.

## Teknikerri buruz

Mugikortasun jasangarriaren esparruan, Teknikerren apustua gailu elektronikoen eta komunikazioen garapenean, potentzia-elektronikan, motor elektrikoetan eta sistema mekatronikoetan, osagai eta baterietarako gainazal multifuntzionaletan eta karga-azpiegituretan oinarritzen da.

### Informazio gehiago:

**GUK** ► Unai Macias

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) / Tel. 690 212 067